

ZARAUZKO “HEGOALDE”ko PLAN BEREZIAREN ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
1.1. Testuingurua.....	3
1.2. Justifikazioa.....	4
2. Ikerketaren helburuak	7
3. Metodologia	7
4. Ikerketaren gorputza	7
4.1. Sarrera.....	7
4.2. Proiektuaren deskribapena.....	8
4.3. Ebaluazio prozesua.....	10
4.3.1. Egistasmoa eta garatuko den testuingurua aztertu.....	11
4.3.2. Galdetegi laburra erantzun.....	11
4.3.3. Bilakaera indizea kalkulatu.....	11
4.3.4. Eragin Linguistikoaren Galdetegia bete.....	12
4.3.5. Funtsezko alderdiei buruzko galdetegia bete.....	12
4.3.6. Neurri zuzentzaileak proposatu.....	13
4.3.7. Txostena bete.....	13
4.4. Eragin Linguistikoa.....	14

4.4.1. Testuingurua.....	14
4.4.2. Galdetegi laburra.....	19
4.4.3. Bilakaera indizea.....	20
4.4.4. Eragin Linguistikoaren Galdetegia.....	23
4.4.5. Funtsezko alderdiei galdetegia.....	27
4.4.6. Neurri zuzentzaileak.....	30
5. Ondorioak edo emaitzak.....	32
6. Bibliografia.....	33
7. Eranskinak.....	34

**ZARAUZKO “16. HEGOALDE”-ko EREMUAREN ERAGIN LINGUISTIKOAREN
EBALUAZIOA**

Egileak:

Maite Aguirrebeña Garitano

Goizane Arana Arexolabeiba (Tutorea)

1.- SARRERA

1.1. TESTUINGURUA

Txosten honen asmoa Zarauzko “16. HEGOALDE” eremuari dagokion Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) egitea da. Eremu hau, udalerriko ekialdean kokaturik dago eta 131.838 m²tako azalera dauka. Bertan, 1.200 etxebizitza eraikitzeko aurreikuspena dago, egungo Eroski saltoki gunea errespetatuz eta hirugarren

sektorerako beste eraikuntza gutxi batzuk eginez. Aldi berean, eta gutxienez 15.000 m² ekipamenduetarako, 2.500 m² zuzkidurazko bizitokientzako eta beste 15.000 m² espazio libreentzako erreserbatu behar dira.

Euskara aurkitzen den egoera zaurgarriaren aurrean (UNESCOk aldarrikatu bezala), kontuan izan beharrekoa da aurrerantzean proiektu desberdinek nolako eragina izan dezaketen hizkuntzaren habitatean, eta ahal den heinean inpaktua saihestu, murriztu edota neurri zuzentzaileak ezarri. Zentzu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta UEMAK 2014an abian jarri zuten euskara babesteko tresna garatzeko proiektua. ELE tresna sortu ahal izateko Galesen hizkuntza inpaktua neurtzeko darabiltena (*Planin and de Welsh Language the way ahead*) eta Ingurugiro inpaktua neurtzeko erabiltzen den SIN CARTER metodologia (*Metodología para los Estudios de Impacto ambiental SIN CARTER*) hartu ziren eredu gisa. Beraz, lehen tresna erabilgarri izan bezain pronto martxan ipini ziren beronen eraginkortasuna eta balioa egiaztatzekotan. Oraindik ez dago behin betiko tresna, erabili heinean moldaketak egiten ari baitira hobetzeko asmoaz. Hala ere, UEMAK atera berri du eredu berri bat zeinen baliagarritasuna erabileraren ondorioz txertatuko den.

Aldi berean, 2016ko apirilaren 14an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian **2/2016 LEGEA**, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa argitaratu zen, zeinen **7.7 artikuluan** egiten diren proiektu eta planetan euskararen erabileran izan lezakeen inpaktua ebaluatzerara behartzen du:

“7.– Udalen egoera soziolinguistikoaren eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira”.

Udal legeak aipatutakoari jarraituz, eta UEMA eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean landutako tresna medio, Zarauzko “16. HEGOALDE” Eremuko ELEa egitea da asmoa. Txostena egiteko ondorengo pausok eman dira:

- Lan taldea eratu: Zarauzko euskara eta hirigintza teknikariak, UEMAKo aditua eta abokatu bat.
- Datuak bildu: eremuko hirigintza irizpideak, udalerriko datu demografiko, soziolinguistiko eta sozioekonomikoak (mugimendu migratorioetan bereziko arreta ipiniaz).

- Bilerak egin: aztertutako datuak azaldu, eztabaidatu eta neurri zuzentzaileak proposatzeko.
- Txostena idatzi.

1.2. JUSTIFIKAZIOA

Euskararen egoerari erreparatuz, azken 30 urteetako EAeko udalerrien ezagutza bilakaera aztertzea komeni da:

Grafiko honen arabera, eremu euskaldunak erdaldundu egin dira, eta erdaldunak euskaldundu, bien batuketak emaitza positiboa ematen duelarik: 1981. urtetik 2011. urtera, %21,6 izatetik %37,2 izatera heldu da. Hala ere, ezin gara konformatu orokorrean euskara ezagutzak gorakada egin duela esanez, xehetasunez aztertu behar baitira kasuak. Hau da, aztertutako urteetan euskaldundu diren udalerririk 1981ean erdaldunenak ziren, eta alderantziz. Beraz, datu pozgarria da udalerririk erdaldunak euskalduntzea, baina ez horrela euskaldunak erdalduntzea.

Zarautzen kasua aipagarria da euskaldunen ezagutza mantentzeaz gain, 15.000 biztanle baino gehiago duen udalerririk euskaldunenetakoa baita. Baina “Arnasgune” bat al da? Kontzeptu honen gainean hainbat definizio daude, baina badirudi adostasun bat badagoela arnasgune bat *euskara naturaltasunez erabiltzen den espazio bat dela* esaten dugunean. Zentzu horretan, eta Kike Amonarrizek 2017ko ekainaren 15ean *Urola-kostako Hitzan* egin zioten elkarrizketan, Zarautz gaur egun arnasgune bat dela zioen (<http://urolakosta.hitza.eus/2017/06/15/kike-amonarriz-ezinbestekoa-da-zarautz-bezalako-herriak-eredu-izatea/>). Baldintza hori ez da udalerririk askotan ematen, eta Zarautzen tamainakoak direnetan gutxiago. Beraz, arnasgune izatearen baldintzak kasu honetan garrantzi handiago du inguruan izan dezakeen eraginarengatik. Baina indarra bi zentzutan egin behar da: batetik, udalerririk euskaldun portzentaia ez galtzearena (eta posible den heinean handitzearena) euskararen normalizazio helburu izanik, eta bestetik, motore izatearena inguruko udalerririk, Zarautzen egiten denak kanporako islada izan dezan eredu-garri bezala.

Gauzak horrela eta biztanleen kontzientzia pizteko asmoz, 2017ko ekainaren 15ean eta Udalaren laguntzaz talde bat eratzeko hitzaldi/topaketa bat egon da Zarautzen. Helburua biztanleriaren hiztunen aktibazioa martxan jartzea da, eta badirudi hasiera positiboa izan dela.

Zentzu honetan, garrantzi berezia dauka Zarauzko kasuak, 1991tik jendearen joan-etorria izanda ere, euskara ezagutza maila mantendu egin baita. Udalerriaren euskaldun maila %70ekoa izanda, udalerrri euskaldun bat dela esaten da (UEMAko darabilen irizpidea gisa).

Datuak positiboak badirudite ere, Zarauzko Udalak euskararen galerari eutsi nahi dio eta ahal den heinean euskararen ezagutza eta erabilera handitu. Hori dela medio, egokia iruditu zaio HAPOan aurreikusten den proiektu baten gainean (zein oraingoz garatuko ez dena) ELE bat egitea, hirigintzak euskararen gain inpaktua izan baitu kasu askotan (biztanle hazkundera ematen denetan bereziki). Beraz, ze biztanle mota espero den etortzea eta honek izango duen eragin posiblea aztertu beharrekoa da, eta horren gainean beharrezko neurriak proposatu.

2.- IKERKETAREN HELBURUAK

Aztertu nahi dena da HAPOan ezarritako irizpideek ze eragin linguistiko izango duten Udalerrri mailan. Eta honen emaitzaren arabera moldatu ahal izatea irizpide horiek, edota behintzat zein neurri kontuan hartu beharko diren jakitea proiektua gauzatzekoan.

3.- METODOLOGIA.

Proiektuaren datu esanguratsuena etxebizitza hazkundera denez, eta ondorioz horrek ekarriko duen biztanleria hazkundera denez, funtsezkoa da Zarautzen azken urteetan emandako migrazio joerak aztertzea. Beraz, datu hauek eta beste datu demografiko, soziolinguistiko eta sozioekonomikoak jasotzeko EUSTAT eta INE-ko datuak aztertuko dira, eta baita Udalak honi buruz dituenak ere. Bestalde, oso garrantzitsuak dira, Soziolinguistikako klusterrak egindako azterlanak, baliagarri izango baitira ebaluazioa egiteko, baita 2008ko martxoaren 5ean GAOn argitaratu zen Zarauzko HAPOa ere.

Aldi berean, ezinbestekoa da Udaletxeko hirigintza eta euskara teknikariek bilerak izatea eta jasotako datuak aztertu, eztabaidatu eta neurri zuzentzaileak proposatzea

ere. Bilera hauek berebiziko garrantzia dute ikuspegi orokor, objektibo eta eraginkorrago bat eman ahal izateko.

4.- IKERKETAREN GORPUTZA.

4.1. SARRERA

2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak bere **7.7 artikuluan** zera dio toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari buruz *“7.–Udalen egoera soziolinguistikoaren eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira”*.

Gauzak horrela, txosten honen helburua Zarauzko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean “16- HEGOALDE” eremuan proposaturiko berrantolamenduak hizkuntzan eta batez ere euskararen izango dituen ondorioak aztertzea da, eta ahal den heinean saihestu edota behintzat kontuan izan beharreko neurriak ezartzea.

4.2. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Zarauzko 16. Eremua den “HEGOALDE”-k 131.838 m²ko azalera dauka, non gaur egun erabilera mistoko hiri-eremua den; batez ere industria eta hirugarren sektoreko erabilera duelarik.

Eraikinen artean industria-pabilioiak nagusitzen dira. Pabilioi hauek, eraikuntzaren eta urbanizazioaren ikuspegitik gabeziak dituzte. Halaber, gaur egun eremu horretan 20 etxebizitza inguru daude.

Eremu honen hirigintza-garapenerako erronka garrantzitsuenetako bat da Zarauzko herrigunetik hurbilen dagoen zatian Euskotreneko trenbidearen zati bat lurperatzeko aurreikuspena. Beraz, hori aurrera eramanez gero, lurzoru horiei dagozkien bizitegi gisako hirigintzak eraikigarritasuna (gehienez 5.000 m² eraikiak) babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea zuzenduko dira.

Hirigintzako irizpide eta helburu orokorren artean honako hauek proposatzen dira:

- Eremuaren kalifikazio-aldaketa. Etxebizitza kolektibo tipologiako bizitegi-kalifikazio orokor izatera pasatzen da. Etxebizitza kolektiboko erabilera gehienez 120.000 m² eraikioa izango da, non gehienez 1.200 m² etxebizitza independente egongo diren, honako profil maximoarekin: sotoko 2 solairu (gehienez) + beheko solairu + 6 solairu + estalkipeko solairua. Horietako %50 a babes ofizialekoa izan behar du:
- Erregimen orokor eta bereziko BOE: %20a gutxienez.
- Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuak: %20a gutxienez.
- Erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuak: %10a gutxienez.
- Trenbidea lurperatzea eremutik igarotzen den zatian.
- Toki-mailako ekipamendu eta zuzkiduretarako lurzoruak, eta zuzkidura-ostatuertarako lursailak eskuratzea:
- Zuzkidura eta ekipamendu tokiko sistema publikorako zuzkidura, ahal izanez gero irakaskuntzarakoa, laguntzakoa edo kirolekoa izango da. Honen gutxienerako azalera 15.000 m²koa izanik, lursail independente batean edo bitan bilduta izanik.
- Zuzkidurazko bizitokiak. Gutxienez 2.500 m²-ko azalera osoa duten lursail independente bat edo gehiago.
- Espazio libretako toki-sistamarako zuzkidura. Gutxienez 15.000 m².
 - Gaur egun Eroski saltoki-gunea dagoen inguruan merkataritzako hirugarren sektorearen izaera gordetzea, etorkizunean egingo den bizitegiko hiri-bilbean hobeto integratzeko ezarritako hirugarren sektoreko erabilerak berriz antolatuta. Sestra gaineko eraikigarritasunari begira, kasu honetan 25.000 m² eraikiak baimentzen dira (eraikuntzaren elementu komunak eta estalkipean zenbatu daitezkeen azalerak barne). Erabilera hau duten lursailen gehienezko azalera ezingo du 12.000 m² baino handiagoa izan.
 - Etorkizunean egingo dituzten eraikuntzen sestrapeko sotoek edo altuerako

eraikuntzak okupatu ez dituzten lurzoru guztiak erabilera publikoko lurzoru gisa kalifikatuko dituzte espazio libre gisa edo komunikaziorako erabiltzeko. Lursail pribatuen eta karrerapeen altueran eraiki gabeko lurzoru libreak, gainazalean erabilera publikoko sortasuna izango du, eta erabilera publikoko lurzoruen helburu berarekin.

- Igerain ubidetik datorren ur-emariaren ibilgua eta ertzak leheneratzea.

4.3. EBALUAZIO PROZESUA

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko metodologia UEMAk landutako tresna erabiliz egin da. Horretarako ondorengo lan-taldea osatu da:

- Maite Etxaniz – Zarauzko Udaleko Euskara teknikaria.

Udaleko euskararen egoera ezagutzeaz gain, indarrean dauden planen berri dauka.

- Olatz Elustondo - Zarauzko Udaleko Euskara teknikaria

Udaleko euskararen egoera ezagutzeaz gain, indarrean dauden planen berri dauka.

- Paul Muñoa – Zarauzko Udaleko Hirigintza teknikaria.

Hirigintza teknikari eta HAPOaren egile.

- Goizane Arana – UEMA

Aholkularia eta hainbat ELEtan parte hartu du, eta tresna beraren egiletako bat.

- Maite Aguirrebeña – Abokatua

Hirigintza munduan lan egiten duen abokatua eta ELE honen egilea.

Lan talde honen helburua, pauso bakoitzean aztertutako datuak ahalik eta objektiboak izatea da. Pertsona bakoitzaren ekarpena oso baliotsua da, gai desberdinetan adituak baitira eta horrek ikuspegi anitz eta osoago bat ematen baitu.

Horregatik, ezinbestekoa da denen artean eztabaidatzea ateratako emaitzeri buruz eta kalteak ekiditeko proposamenak adostea. Horretarako, hiru bilera egin dira proiektua aurrera joan heinean.

4.3.1.- Egitasmoa eta garatuko den testuingurua aztertu.

Lehenengo pauso hau aztertzeko alde batetik Zarautzen indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) aztertu da, ("16. HEGOALDE" eremuari dagokionez batez ere) bertan azaltzen baitira bertako datu urbanistikoak. Atal honetan, hirigintzako udal teknikariaren partehartzea lagungarri izan da, batez ere HAPOaren egile izan baitzen eta zuzeneko ikuspegia ematen lagundu baitigu.

Aldi berean, udalerriko datu demografiko eta soziolinguistikoak jaso dira, bai Eustat, INE eta udalak emandako errolda datuen arabera.

4.3.2.- Galdetegi laburra erantzun.

Galdetegi honen helburua proposaturiko proiektuak eragina izango duen edo ez aztertzea da. Beraz, galdetegi honetako lau galderatariko batean BAI-ezkoa erantzunez gero, ondorengo pausora pasa behar da, hau da, Bilakaera Indizea Kalkulatzea.

Aipatutako galderak aldaketa bat suposatzen duten edo ez jakin behar da:

- biztanle kopuruaren hazkundera
- bisitari/erabiltze/ langile kopurua ugaritzea
- hizkuntza politikan aldaketa
- tokiko harreman sareak aldatzea

4.3.3.- Bilakaera Indizea

Kasu honetan biztanleria kopuruaren hazkunde bat emango dela suposatzen denez, urrats hau ematen da eta horretarako Hauskortasun indizea (HI) eta Euskararen ezagutzaren proiektzioaren indizeak (EPI) kalkulatzen dira. Eta bi horiek kalkulatu

ondoren, Bilakaera Indizea lortzen dugu, proiektuak udalerrriaren euskararen ezagutzan izan dezakeen eragina.

4.3.4.- Eragin Linguistikoaren galdetegia bete

Pauso honen helburua da hizkuntza ikuspegitik proiektuaren eragina modu zehatzago batean aztertzea. Horretarako 6 atal aztertzea proposatzen da:

- Komunitatearen kultur eta gizarte bizitza.
- Tokiko euskararen ezagutza.
- Tokiko euskararen erabilera.
- Hizkuntza paisaia.
- Zerbitzuen/ jardueren/ egitasmoen komunikazioa.
- Euskarazko zerbitzuen eskaintza.

Proiektuaren fase bakoitzean hizkuntz eragina zer nolako den aztertzen du tresnak: proiektua egin bitartean izango duen eta proiektua egin ondoren utziko duena.

Horrez gain, erantzuna BAI-ekoa den kasuetan eraginaren intentsitate maila baloratzen da (1,2 edo 3).

Azterketa honetarako, lau pertsona bildu ginen: udaleko 2 euskara teknikari, Goizane Arana eta ni. Beti ere bakoitzaren ikuspegia desberdina baita eta helburua ahal den objektibotasun handienarekin aztertzea baita.

4.3.5.- Funtsezko alderdiei buruzko galdetegia bete.

Galdetegi honen helburua proiektuak dituen gabeziez jabetzea da, bertan azaltzen diren puntuak proiektu guztietan jaso beharrekoak izan behar luketelako eragin negatiboa saihesteko.

Alderdi hauek atal desberdinetan banaturik daude:

- Etxebizitza
- Espazio publiko irekiak
- Oinarrizko ekipamenduak
- Jarduera ekonomikoa
- Jarduera soziokulturala
- Hizkuntzari lotutakoak

Horrela, emandako erantzunaren arabera, neurri zuzentzaileak proposatzerako garaian kontuan izan beharrekoak zein puntu izango diren identifikatzen laguntzen du.

Atal hau osatzeko, udaleko euskara teknikariez gain hirgintza teknikariak ere parte hartu dute prozesu honetan bere ikuspegia oso desberdina eta aldi berean osagarri baita.

4.3.6.- Neurri zuzentzaileak proposatu.

Behin datu denak jaso ondoren, eta beti ere hizkuntzaren ikuspegitik, proiektuaren puntu ahulak edota mehatxuak non egon ahal diren identifikatuta izan ondoren, denen artean adostasun batera iritsi beharreko momentua da hau. Honetarako oso garrantzitsua da prozesu osoan parte hartu dutenen iritzia jaso eta batez ere aurrerantzean proiektuaren gainean proposaturiko neurri zuzentzaileak aurrera eramateko ahalmena dutenak egotea.

4.3.7.- Txostena bete

Informazioa jaso, indizeak kalkulatu eta galdetegi desberdinak bete ondoren, txostena idaztea da hurrengo pausoa, azterlan osoan zehar ikusitakoa jasoaz.

4.4. ERAGIN LINGUISTIKOA

4.4.1.-Testuingurua

Zarautz, Urola kostako eskualdean kokaturik dagoen 22.522 (2011an) biztanleko udalerrri bat da, Aia eta Getaria dituelarik mugakide.

Azken urteetan biztanleriari dagokionez, goraka egin du, jaiotze tasa beheraka egin arren:

ZARAUZKO BILAKAERA ADIN TARTEKA (1986-2011)

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
Gizonezko	8.173	50 %	8.915	50 %	9.470	49 %	10.400	49 %	10.911	49 %	11.031	49 %
Emakumezko	8.231	50 %	9.092	50 %	9.732	51 %	10.678	51 %	11.184	51 %	11.521	51 %

0-19urte	5.258	32 %	5.161	29 %	4.569	24 %	4.528	21 %	4.593	21 %	4.702	21 %
20-64urte	9.566	58 %	10.794	60 %	12.044	63 %	13.665	65 %	14.243	64 %	14.067	62 %
>64urte	1.580	10 %	2.052	11 %	2.589	13 %	2.885	14 %	3.259	15 %	3.783	17 %
Biztanleria	16.404	100	18.007	100	19.202	100	21.078	100	22.095	100	22.552	100

		%		%		%		%		%		%
--	--	---	--	---	--	---	--	---	--	---	--	---

Iturria: Eustat

ZARAUZKO BILAKAERA (2011-2016)

Eustat A.F.E. biziaren berri ematen duen informazioa ematen duen webgunearen bidez eskuratu da.

Iturria: Eustat

Azken urteetan goraka egin arren, badirudi aurrerantzean ez duela horrela jarraituko, ez Zarautzen bakarrik, Gipuzkoa osoan baizik. Hala ere, 2011 urtean ondoko adin-piramidea zuen Zarautzek:

GRAFIKOA ADIN-PIRAMIDEA (2011)

Iturria: Eustat

Gauzak horrela, interesgarria da udalerraren biztanleria jatorria aztertzea:

BIZTANLE BERRIEN JATORRIA (2005-2011)

	Kopurua	%
Aia	61	% 1,93 %2,85
Getaria	90	% 2,85
Orio	95	% 3,01
Zumaia	65	% 2,06
Gipuzkoako beste herriak	1.014	% 32,12
Araba	60	% 1,90
Bizkaia	153	% 4,85

Nafarroa	88	% 2,79
Estatua	510	% 16,15
Atzerria	1.021	% 32,34
Guztira	3.157	% 100,0

Iturria: Zarautzeko udala

Beraz, badirudi Zarautzera datorren ia %50a EAetik datorrela, hala ere, dexenteko barne mugimendua dago:

+MIGRAZIO MUGIMENDUAK		2015	2014	2013	2012	2011	2010
___Immigrazioa		311	288	265	296	317	338
___Emigrazioa		290	289	264	231	295	288

___ Helburuko barne-migrazioa	472	521	561	418	388	422
___ Jatorrizko barne-migrazioa	361	447	450	384	440	400
___ Migrazio saldoa. Guztira	132	73	112	99	-30	73
___ Migrazio saldoa-gizonezkoak	73	34	40	14	-24	40
___ Migrazio saldoa-emakumezkoak	59	39	72	85	-6	69
___ Udalerri barruko migrazioak	1166	1213	1426	1071	968	911

Iturria: Eustat

Soziolinguistikako Klusterrak 2016an Zarauzko hizkuntz erabileraren inguruan kale neurketa egin zuen, honako emaitzak jasoaz:

	Kop.	(%)
Euskaraz	3.186	50,5
Gaztelaniaz	2.971	47,1
Bestehizkuntzetan	148	2,3
GUZTIRA	6.305	100,0

Hala ere, erabileraren portzentaia 2011ean %50ekoa zen, beraz txikia bada ere 0,5eko gorakada izan du azken 5 urtetan.

Erabilera, adin tarteka banatuz gero, haurrak dira gehien erabiltzen dutenak (%70,05), gero gazteak (% 54,6), gero helduak (%41,7) eta azkenik adinekoak (%37,3):

	GUZTIA K	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	50,5	70,5	54,6	41,7	37,3
Gaztelaniaz	47,1	28,1	42,8	55,2	61,4
Beste hizkuntzetan	2,3	1,3	2,6	3,2	1,4

GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	6.305	1.792	659	3.079	805

Datu sozioekonomikoei begira, Zarauzko jarduera ekonomiko jarrantzitsuena Zerbitzuen da:

Jarduera ekonomikoari dagokionez, hauek dira eskuragarri dauden azken datuak:

JARDUERA	(%)
Industria	% 13,80
Nekazaritza, abelzaintza, arrantza	% 0,60
Eraikuntza	% 7,20
Zerbitzuak	% 78,40

Iturria: Eustat 2012ko datuak

Langabezia tasa 2010ean %9,1ekoa zen, eta 2015eko datuen arabera %13,8koa, sexu arteko portzentaia parekoa izanda.

Zerbitzuetako jarduera ekonomikoa motore izanda udalerrian, proiektuan sortzen diren etxebizitza azpiko lokaletan hirugarren sektoreko denda edo lantokiak kokatzeko toki aproposa izan daiteke.

Zerbitzuen eskuragarritasunari begira, esan dezakegu Zarautz bertan aurkitzen direla oinarrizko zerbitzuak eta beste hainbat ere bai: ambulatorioa, lau ikastetxe (haur eskola, herri eskola bat eta hiru ikastetxe kontzertatu), udal kiroldegia, udal euskaltegia, liburutegia, gaztetxea, Kz gunea...

Guztiak udalerriri bertan daude, eta irisgarritasunari begira dela oinez, dela bizikletan iristeko arazorik ez dago.

Euskararen inguruko egituraketari begira Udalerriak honako zerbitzuak izan eta eskaintzen ditu: Euskara zerbitzua, Udal Euskaltegia, AEK, Euskararen Aholku Batzordea, Hitza egunkaria, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

4.4.2.-Galdetegi Laburra

Zarauzko HAPOko "16. HEGOALDE" eremuan 1.200 etxebizitza egitea aurreikusten da, eta beraz, guztiak kanpotarrak ez izan arren, biztanleriaren kopurua handituko dela argi dago.

Aldi berean, kontuan izan behar da proiektuaren dimentsioa eta kokapena, hau da, gaur egun industria eta hirugarren sektoreko erabilera duen gun bat dela zein etxebizitzaz inguraturik dagoen. Gainera hainbat ekipamendu (kiroldegi, eskola, haurtzaindegi) oso gertu ditu, eta beraz, hiztun komunitatearen sarean eragina izango duela dirudi.

Gauzak horrela, eta lau galderetako biri baiezkoa erantzunda hurrengo pausora jo behar dugu, bilakaera indizea kalkulatzera hain zuzen ere.

4.4.3.- Bilakaera Indizea

Lehen eman beharreko urratsa Zarauzko **Hauskortasun Indizea (HI)** kalkulatzera da, eta horretako 2011ko datuak izan ditugu kontuan:

- Udalerriko biztanle kopurua: 22.552
- Euskaldunak: %70,03
- Lehen hizkuntza: % 55,20
- Etxeko hizkuntza: %40,50
- Euskararen babesa: UEMAn dago eta ESEPa ere badauka

Datu hauen arabera, Zarautz **hauskortasun txikia** duen udalerria dela dirudi, **3,666667**ko emaitza ateratzen baita, atal bakoitzari garrantzi desberdina emanik:

Udalerriko biztanle kopurura	1
Euskaldunen ehunekoa	4
Lehen hizkuntzaren ehunekoa	2
Etxeko hizkuntzaren ehunekoa	1
Euskararen inguruko egituraketa	0
HI	3,66666667
Hauskortasun txikia	

Formula= (((etxeko hizkuntza x 2)+ euskaldunak+ lehen hizkuntza)/ 3) + (biztanle kopurua + euskararen babesa)

Behin proiektuak udalerriko egoera soziolinguistikoa zer-nolako neurrian hauts dezakeen ikusirik, hurrengo indizea kalkulatu da, **Euskararen Proiekzio Indizea (EPI)** hain zuzen ere.

Kontuan izan beharreko datuak lehendabizi eraikiko diren etxebizitza kopurua da eta horren arabera gune horretara etorriko diren biztanleak:

- Etxebizitza. HAPOan “16. HEGOALDE” eremurako gehienez 1.200 etxebizitza aurreikusten badira ere, kontuan izan behar da, gaur egun eremu honetan 20 bat etxebizitza daudela. Beraz, etxebizitza hauek eremu berria eraikitzen den garaian egongo ez diren arren, bertako bizilagunak eremu horretan kokatzea litzake beste bizileku bat emanez bertan. Horrela, kontuan izan beharreko etxebizitza kopura 1.180 da.

- Biztanleak. Beste daturik izan ezean, era orokor batean 3 biztanle kalkulatu da etxebizitzako, baina hemen HAPOko memorian jada ezartzen du Zarauzko ereduako familia 2,82 kidez osatutakoa dela. Hartara, 1.180 etxebizitza eraikiz gero 3.328 biztanle kalkulatu behar ditugu eremu berri honetarako.

Ondorengo pausua, Zarauzko migrazio joerak aztertzea izan da, bi alditan:

- Batetik, 2005 eta 2011 urteen artean Zarautzera etorritakoen jatorria kontuan izanik eta 4.4.1 epigrafean azaldutakori helduz, udalerrira etorritakoaren gehiengoa Euskal Autonomi Erkidegokoak dela kontuan izan beharrekoa da.
- Eta bestetik, 2010 eta 2015 urteen bitartean emandako migrazio joerak aztertu dira, non datu hauetan udalerriko barne migrazioa ere oso kontuan hartu den. Zentzu honetan, udalerrri bertan mugimendu handia dagoela jabetu gara, eta hortaz datu hau kontuan hartu beharrekoa da, zeren eta Zarauzko beste etxebizitza batzuetan diren pertsonak eremu honetara etorriko direla suposa daiteke. Izan ere, jasotako datuen arabera, eremu honetara etorriko den %61,1a udalerrri bertakoa izatea espero da.

Hortaz, eta bigarren eranskinean azaldutako datuen arabera, eremu honetara udalerrri kanpotik etorriko direnak 1.295 biztanle izango dira, eta jatorriaren euskaldunen arabera Zarauzko euskaldunen portzentaia %67,98ra jaitsiko litzake, hau da, %2,05eko jaitsiera suposatuko luke.

Azkenik **Bilakaera Indizea** atera behar da, Zarauzko Hauskortasun indizea (%3,67) eta Euskararen Proiekzioa Indizea (% -2,05) kontuan izanik:



Eraitza positiboa izanda ere, ezin dugu esan proiektu honen eragina positiboa izango denik, batez ere euskaldunen portzentaia ehuneko 70tik jaisten delako eta horrekin, arnagune izaera galduko lukeelako. Horregatik, zurrak izanez hobe genuke esan garrantzi gutxi izango duela udalerriko euskara ezagutzan.

Zentzu honetan, aipatu beharrekoa da, azkenengo urteetan eta biztanleria hazkundera eman den heinean Zarauzko euskara ezagutza mantendu egin dela, eta printzipioz ez dirudi beste faktore desberdinak ematen direnik oraingo kasuan hau aldatuko duenik:

	1991	1996	2001	2006	2011
--	------	------	------	------	------

Euskaldunak	12.314	%	70	13.503	%	72	14.607	%	71	14.996	%	70	15.356	%	70
la-euskaldunak	2.467	%	14	2.653	%	14	3.060	%	15	3.570	%	17	3.729	%	17
Erdaldunak	2.784	%	16	2.554	%	14	2.787	%	14	2.807	%	13	2.843	%	13
Hiztunak	17.565	%	100	18.710	%	100	20.454	%	100	21.373	%	100	21.928	%	100

Aztertzen ari garen eremutik gertu antzerako proiektu bat garatu zen 90eko hamarkadan, Aritzatalde ingurua hain zuzen ere. Ekimen honetan, 894 etxebizitza aurreikusten ziren (754 blokeetan eta 140 familiabakarrekoak) non 1996 eta 2001 urteen artean 1.608 pertsona erroldatu ziren, honango jatorria zutelarik:

- Zarauztarrak: 988 (%61,44), 427 babes ofizialetara eta 561 promozio pribatutara.
- Gipuzkoako beste herriak: 487 (%78,54)
- Bizkaitik: 49 (%7,90)
- Nafarroatik: 25 (%4,03)
- Arabatik: 6 (%0,60)
- Besteak: 53(%8,54)

Epe horretan, Euskaldunen portzentaia puntu bat jaitsi zen, baina igoera handia izanda udalerrri euskalduna mantentzen jarraitu du. Hau da, 2011 urtean, 1991ko euskaldun portzentai berdina dago, 4.363 biztanle gehiago izanda.

4.4.4.- Eragin Linguistikoaren Galdetegia

Galdetegi honen helburua hizkuntza ikuspegitik proiektuak izan ditzakeen gabeziez ohartaraztea da, eta horrela jaso da hirugarren eranskinean. Bertan atal desberdin hauek azaltzen dira:

1.- Komunitatearen eta kultur eta gizarte bizitzan

Proiektua egiten den bitartean, eragina mugatua izango dela espero da, hau da, eremu horretan soilik nabarituko dela. Bereziki etxebizitza proiektua denez (fase bakar baten egin edo desberdinetan) zentzuzkoa dirudi obrak dirauten momentuan biztanleen bizitzan eragina izatea obra hauek direla eta. Baliteke adibidez, gaur egun, gimnasio bat egotea inguru horretan eta proiektua hasi bezain pronto jarduera hori dagoen eraikina bota beharra egotea. Ondorioz, ordurarte bertara joaten ziren erabiltzaileak beste nonbaitera joan beharra izango dute, honek dakarren harreman sareen aldaketa emanez. Intentsitateari dagokionez, 2-a ematea erabaki da.

Proiektua egin ondoren, eragina hedatua izango da, gutxienez inguruko auzoeri dagokionez. Ez hori bakarrik, baizik eta ekipamendu publikoetarako espazioak erreserbatzen direnez, badirudi etorkizunean udalerrri osorako erabilgarri izan daitekeen ekipamenduren bat egotea. Horregatik gainera, etengabeko eragina izango du honek. Intentsitateari begira, azkenengo bi kasu hauetan baxua izango dela suposatuta da. Baxua izatearen zergatia, komunitate osora zabaltzeak onuragarri ere egingo duela ulertzen delako. Hau da, beste auzoetako biztanleak erakarriz biztanle berrien integrazioa lor daitekeelako. Gainera, udalerrri mailan izango duen eragin negatiboa ez dela horren handia suposatzen da.

2.- Tokiko euskararen ezagutzan

Badirudi eremu berria eraikitzen den bitartean tokiko euskararen ezagutza jaitea posible izatea. Urbanizazio eta eraikinak egiteko langileek eremu honetara etorri eta bertan lan egiteaz gain suposatzen da gutxieneko interakzio bat izango dutela inguruko merkataritzan (jatetxe, taberna, denda...). Beste batzuk gainera, bizitzen gelditzea posible da, obraren iraupenaren arabera. Baliteke bertan aritzen diren langileak ezagutza maila izatea, baina ezin denez ziurtatu, okerrenean jarri behar dugu neurri zuzentzaileei begira.

Proiektua egin ondoren, Bilakaera indizea 1,62 izanda berez eragin gutxi izango duela dirudi, baina %70etik jaisteko arriskua dagoenez intentsitatea ertaina ipintzea egokiago iruditu zaigu proiektua egingo den eremuan eta baxua udalerrri osoaren kasuan. Hemen argi dago eragina etengabekoa izango dela, eraikinak bertan geldituko direlako eta intentsitatea aurrekoan bezala baxua izango dela ulertu da.

3.- Tokiko euskararen erabilera

Erabileraren kasuan, ezagutzaren berdin ulertu da arrazoi berdinegatik. Hala ere, bereziko atentzioa ipini behar zaio erabilerari, azken 5 urteetan %0,5 igo arren zaindu beharrekoa delako. Beraz, honen gainean neurriak proposatu beharko dira oso sentsiblea den alderdi bat baita, honen galerak izugarri eragin diezaiokelako euskarari.

4.- Hizkuntza paisaian

Proiektua egiten den bitartean, hizkuntza paisaiari dagokionez badirudi obretan ezartzen diren kartelei begira dela, beraz eragina negatibo baxua izango duela ulertzen da, beti ere Udaletxetik kontrolatzen bada.

Behin proiektua egin ondoren, udaletxeari dagozkion horma-irudi guztiak euskaraz izango diren bermea izan eta hizkuntz irizpideak eman arren, hirugarren sektoreko lokal desberdinak ezartzeko aukera izanik ezin da kontrolatu guztiz. Beraz, eragin ertaina ipini da, etengabeko eragina izango duela ere suposatuz.

5.- Zerbitzuen/ jardueren/ egitasmoen komunikazioetan

Eremua eraikitzen den bitartean aurreikusten den eragina ertaina da. Hori baloratzeko gaur egun Zarautzen martxan dauden promozioei begira egin da. Etxebizitza promozioen komunikazioa, aipatutako kasuetan komunikazioa elebitan egiten da, beraz "HEGOALDE"n berdina gertatzea litekeena da.

Proiektua gauzatu eta gero, sortuko diren zerbitzuak (denda, aisialdia...) ezin denez bermatu euskara hutsean izango direnez, eragina baxua izango dela ulertzen da, eta gainera etengabekoa izango da. Eragina hedatua dela suposatzen da, eskaintza udalerrri osorako izango delako, bertakoak gehiago erabili arren.

6.- Euskarazko zerbitzuen eskaintza

Proiektua egin arte ez da eraginik espero, beraz eragina behin egin ondoren emango da. Halere, eragina baxua izango den susmoa dago, eta egingo diren ekipamendu eta zerbitzu eskaintzaren arabera izango da.

Behin galdera guztiak erantzun eta intentsitatea baloratu ondoren, baremoak hartzen dira kontuan, lehenik atalka eta gero guztiak batera. Atalka aztertuz, denek baxua ematen dute, “Tokiko euskararen ezagutza” eta “Tokiko euskararen erabileran” ezik, ertaina eta handia ematen dutelarik.

2. Tokiko euskararen ezagutza	20

3. Tokiko euskararen erabileran	30

Guztiak batera aztertuz, Eragin Linguistikoaren Intentsitate Puntuazioa “Garrantzi gutxikoa” izango dela ateratzen da. Halere, aurretik esandakoa kontuan izan beharko da neurri zuzentzaileak proposatzeko garaian:

Eragin Linguistikoaren Intentsitate Puntuazioa	72,5

4.4.5.-Funtsezko alderdien galdetegia

Behin eraginaren indizea kalkulatuta izan ondoren, proiektuak jaso beharreko funtsezko alderdien galdetegia osatu da. Hemen ere atalka joan da:

1.- Etxebizitza

IZAERA:

- Eremuko etxebizitzaren %50 gutxienez babes ofizialekoa da, eta oraindik zehaztu

gabe egon arren, hauek herritarrei soilik eskaintzea da asmoa.

- HAPO bat denez, ez da zehazten ze ekipamendu mota joango den bertan, baina 15.000 m² aurreikusten dira horretarako espazio baten edo gehienez bitan izatea. Eta berdin gertatzen da espazio libreekin. Baita zuzkidura etxebizitzari dagokionez, 2.500 m²-ko azalera osoa duen lursail independente bat edo gehiago aurreikusten da.
- Eraikinen altuera ezartzen da: behe solairua + 6solairu + estalkipeko solairua. Honek aldi berean espazio libre gehiago egoteko aukera ematen du parke edo dena delakoak izateko eta harreman sareak toki horietan emateko.

DIMENTSIOA

- Ez da helburutzat ezartzen herriaren hazkuntza jasagarria izatea, baina gidalerrotan ezarritako baino etxebizitza kopuru gutxiago egitea da asmoa.
- Ez da lehentasuna ematen herritarrek etxebizitzak lortzeko, baina babes ofizialetakotan hori da asmoa.
- Ez da aurreikusten fase desberdinetan egingo denik, baina badirudi proiektuaren tamaina ikusirik ezinbestekoa izango dela tarteka egitea.

LEKUKOTZEA

- Zarautzeko eremu jakin batez ari garenez, etxebizitza guztiak eremu honetan doaz.

2.- Espazio publiko irekiak

IZAERA:

- HAPOak definitutako eremu jakin bat aztertzen ari garenez, oraindik definitu gabe daude espazio publikoak. Hala ere, esan beharra dago, ingurua oso laua

dela eta udalerrri mailan bide-gorri plan bat dagoela non eremu hau kontuan hartzen duen.

DIMENTSIOA

- Oraindik ezer zehatza egon ez arren, 15.000 m²ko espazio libreentzat aurreikusten dira.

LEKUKOTZEA

- Eremuan gaur egun dauden eraikin guztiak antolamendu geroratutik kanpoko egoeran deklaratzeko dituzte, Araba kalea 43ko Talleres Auxiliares de Fundación enpresa eta Maria Etxetxiki 15eko Elektromekanike antzinako pabilioiko bulegoak hartzen zituzten eraikinak salbuetsita. Hauek, behin-behinean, arkitektura-intereseko katalogoan (10.titulua) sartu dituzte, Plan Bereziari dagokiolarik horien inguruan proposamena egitea, kontuan izanik Udalaren asmoa hirugarren sektoreko edo ekipamenduetarako erabiltzea delarik.
- Lehen aipatu bezala, inguruan hainbat ekipamendu daude (ikastetxe, kiroldegi).

3.- Oinarrizko ekipamenduak

IZAERA:

- Aurretik azaldu bezala gaur egun haur eskola, ikastetxe eta kiroldegia daude eremu honetatik oso gertu.

Aipatzen diren beste alderdiei gain, HAPOari ez dagozkiola esan daiteke, proiektua aurreratuago eta definituago dagoen beste momentu batean aztertu beharko dira eta.

4.- Jarduera ekonomikoa

IZAERA:

- Ekimen berak ez ditu lan aukerak sustatzen, baina esan daiteke etxebizitza

azpitan eraikiko diren lokaletan eta baita hirugarren sektoreko erabilerari lotuta dauden gehiengo 25.000 m² lursailetan sortuko diren espazioei esker lan aukerak egongo direla.

Gainontzeko puntuei buruz esan dezakegu gauden puntuan gaudela (HAPOa martxan eta Plan Berezia egin gabe) ez dagokiola galdera hauei erantzutea.

5.- Jarduera soziokulturala

Kultura edo turismoari loturiko ekimena ez denez ez da galdera hauei erantzuten.

6.- Hizkuntzari lotutako funtsezko alderdiak

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK:

- Proiektuaren exekuzio faserako HAPOan ez da hizkuntza irizpiderik aipatzen. Hala ere, Udalak bere egunerokotasunean eskatzen ditu hainbat gauza: hizkuntz paisaia izatea, baita plano eta proiektuen memoria gutxienez, eta Plan Berezi edo/eta egiterakoan elebitan aurkeztu beharra tramitatu ahal izateko.
- Proiektua garatu eta gerorako ere ez dago aipamenik, baina asmoa udalerriko beste auzoetan bezalako irizpideak jarraitzen dira.

NEURRI OSAGARRIAK:

HAPO fasean egonda ez dagokio bertan neurri osagarri edo aringarriak azaltzea.

4.4.6.- Neurri zuzentzaileak

Aurrekari guztiak ikusi ondoren, proiektuaren momentu desberdinetan kontuan hartu

beharreko neurri zuzentzaileak proposatzen dira:

IZAERA:

- Etxebizitza inguruetan espazio publiko eta haur parkeak egotea bermatu, honek pertsonen arteko harremanak bideratzen baitituzte. Baita berdeguneak, baratz edo lorategi komunitarioa, etxebizitza azpian lokal komunak guztientzako.
- Ahal den heinean babes ofizialeko etxeak hartzerako garaian lehentasuna herritarrei ematea.

DIMENTSIOA

- 15.000 m²ko espazio libreentzat aurreikusten direla aprobetxatuz inguruko beharrei egokitu eta erabilerak aurreikusi, eta ahal den heinean heldu eta txikiak elkarrekin egon daitezkeen espazioak sortu.
- Zuzkidurako bizitokiak eginez gero, herritar gazteei zuzendutako alokairuko etxebizitzak izaten ahalegindu.
- Etxebizitza azpian erabilera publikoko lokalak sustatu momentuko beharrei egokiturik: euskaltegi, alokatu, udal zerbitzuak ezarri...
- Proiektua fase desberdinetan gauzatzea.

LEKUKOTZEA

- Babesturik dauden bi eraikinei erabilera bat ematea, hirugarren sektoreko erabilerara egokitua edo ekipamendu publiko gisa.

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

- Babestutako etxebizitzak esleitzerako garaian lehentasuna herritarrei eman.

- Urbanizazioa gauzatzekoan, bertan dauden langileak euskaldunak izan daitezzen ahaleginak egin.
- Proiektuak euskaraz izatea bermatu edo elebitan gutxienez.
- Paisaia linguistiko irizpideak betearazi.
- Udalak egindako komunikazioetan lehentasuna eman.

OSAGARRIAK

- Etorri berriei harrera egin.
- Euskalduntzea erraztu.
- Sentsibilizazio plana aurrera eraman.
- Herritarrentzako ahalduntze saioak sustatu.

5.- ONDORIOAK EDO EMAITZAK

Emaitzak aztertuz, badirudi Zarautzek kanpotik datorren biztanle ez euskaldunak asimilatzeko gaitasuna baduela, 1991ko urtetik horrela izan da eta. Hau da, azken 20 urteetan (1991-2011) euskara ezagutza %70ean mantendu da udalerriko biztanleria 4.363 igo delarik.

Bide honetan, “16. HEGOALDE” eremuan espero diren biztanle berrien datuak jaso ondoren eta udalaren asimilazioarekin alderatuz, badirudi proiektu honek garrantzi gutxi izango duela Zarautzeko euskara ezagutzan. Hala ere, ezin dugu ahaztu euskaldunen protzentaia ehuneko 70etik jaisteko arriskua aurreikusten dela, eta horrek udalerraren arnagune izaera galtzera eramango lukeela.

Gainera, Eragin Linguistikoaren Galdetegia osatzeko garaian, kontuan hartu beharreko bi puntu azaldu dira ez horren positiboak: tokiko euskararen ezagutza eta tokiko euskararen erabilera. Lehenengoaren kasuan, proiektuaren eragina ertaina izango dela atera da, eta bigarrengoa handia. Beraz, bereziki erreparatu behar diogu erabileraren alderdiari, oso sentsiblea delako eta honen jaitzierak izugarri eragiten baitio euskararen bizi-iraupenari. Hau da, hizkuntza ezagutu baina erabiltzen ez bada, hizkuntzak baliogarri izateari utziko dio eta azken finean desagertu egingo da. Horretarako,

garrantzi handia dauka neurri zuzentzaileen atalak, bertan aipatzen baitira zeintzuk izan daitezkeen ekimenaren mehatxuak edo puntu ahulak, eta nola saihestu daitezkeen.

Azkenik egokia deritzot aipatzea, Udalerri mailan dinamika sozialak ere martxan ipintzeko lanetan hasi direla eta ezinbestekoa dela sensibilizazio maila hori lortzea biztanlerian ezagutzatik erabilerara pasatzeko pausoa eman ahal izateko. Beraz, proposatutako neurri zuzentzaileak jarraituz dinamika sozial eraginkor baten laguntzaz, ez legoke arriskurik euskararentzat Zarauzko udalerrian “16. HEGOALDE” bezalako proiektu bat gauzatzeko.

6.- BIBLIOGRAFIA

- Soziolinguistikako klusterra (2014). *“Datu soziolinguistikoen bilduma. Zarautz 1986-2011”*. Andoain, Soziolinguistika Klusterra.
- Soziolinguistika klusterra (2016). *“Zarautz. Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016”*. Andoain, Soziolinguistika Klusterra.
- Zarauzko Udala (2014). *“Euskara sustatzeko Zarauzko ekintza plana 2015-2017”*. Zarautz, Zarauzko Udala.
- Iñaki Iurrebaso Biteri (2015). *“Udalerri erdaldunak euskalduntzen eta euskaldunak erdalduntzen, arnasguneak arriskuan. EAE, 1981-2011”*. Andoain, Bat Soziolinguistika Aldizkaria.
- Iñaki Iurrebaso Biteri (2015). *“Udalerri euskaldunak EAEn: Egoera eta Bilakaera 1981-2011”*. Andoain, Soziolinguistika Klusterra.
- Iker Salaberria Urkizu (2014). *“Arnas-estutik urbietara”*. Andoain, Bat Soziolinguistika Aldizkaria.
- Iñaki Martinez de Luna, Xabier Erize eta Mikel Zalbide *“Euskararen bilakaera Soziolinguistikoa (1981-2011)”*. Andoain, Soziolinguistika Klusterra.
- Aritz Mutiozabal (2017-06-15), *Kike Amonarriz: “Ezinbestekoa da Zarautz bezalako herriak eredu izatea”*. Zarautz, Urola kostako Hitza.

Maite Aguirrebeña Garitano

7.- ERANSKINAK